



Donostia, 2021eko azaroaren 25a

GELTOKIEN LEKUALDAKETAK DONOSTIA-SAN SEBASTIAN MARATOIA DELA ETA - AZAROAREN 28A

Azaroaren 28an, igandean, Donostia-San Sebastian Maratoia hiriko kaleetan egingo dela eta, **8:20tik 14:00etara,** gutxi gorabehera, lasterketa igaroko den zonaldeetako autobus geltokietan aldaketak egongo dira.

Era berean, **7:20tik 13:00etara Dbuseko autobusetan bidaiak dohainik izango dira,** (38-Trintxerpe-Altza-Molinao linean eta TB6 Taxibus Ulia zerbitzuan izan ezik), bidaia horien kostua probaren antolatzaileek hartuko baitute beren gain.

➤ **5-BENTA BERRI**

Boulevardeko amaierako geltokia Santa Katalina zubira aldatuko da.

-Erdialderantz: 5 linea ezingo da Antiguotik ibili. **Antiguora joateko, erabiltzaileek Errotaburu-Antiguo lotura zerbitzua hartu beharko dute Errotaburu 6an.** Lotura zerbitzu hori Zarautz Hiribidetik ibiliko da, eta bertan geldialdiak egingo ditu. 5 lineako autobusek Saihesbidetik jarraituko dute eta Pio XII.era iritsiko dira eta handik Santa Katalina zubira joango dira (amaierako geltokia).

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Hiribidea, Ondarreta, San Martin 57, Askatasunaren Hiribidea 31, Okendo eta Boulevard.

-Antiguo alderantz: Boulevardeko, Zubieta 14ko eta La Perlako geltokiak Santa Katalina zubira aldatuko dira. Linea honen autobusak F.G. Lorcatik joango dira Amarrantz, eta handik Saihesbidea hartuko dute Antiguorantz. Autobus geltoki zaharrea geldialdia egingo dute (behin-behineko zutoina). Amaierako geldialdia Errotaburu 6an egingo da.

Geltoki hauek kenduko dira: Matia, Benta Berri plaza, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32, Zarautz Hiribidea 90 eta Zarautz Hiribidea 122.

➤ **25-BENTA BERRI-AÑORGA**

Boulevardeko amaierako geltokia Santa Katalina zubira aldatuko da.

-Erdialderantz: Añorgatik Errotaburuko geltokira iritsiko da (5 linea). **Antiguora joan nahi duten bidaiariek autobusez aldatu beharko dute eta Errotaburu-Antiguo zerbitzua hartu.** 25 lineako autobusek Saihesbidetik jarraituko dute eta Pio XII.era iritsiko dira eta handik Santa Katalina zubira joango dira (amaierako geltokia).

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Hiribidea, Ondarreta, San Martin kalea 57, Askatasunaren Hiribidea 31, Okendo eta Boulevard.

-Antiguo alderantz: Boulevardeko, Zubieta 14ko eta La Perlako geltokiak Santa Katalina zubira aldatuko dira. Linea honen autobusak F.G. Lorcatik joango dira Amarrantz, eta handik Saihesbidea hartuko dute Antiguorantz. Autobus geltoki zaharrean geldialdia egingo dute (behin-behineko zutoina), baita Errotaburu 6an ere. Hemendik Añorgarantz jarraituko dute.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Londres Hotela, La Perla, Zumalakarregi Hiribidea eta Tolosa Hiribidea.

➤ **16-IGELDO**

- **IGELDOKO zerbitzuak:** Jose Maria Satrustegi kaleko geltokitik (Ezeiza) Igeldo Antiguoko auzoarekin lotzeko zerbitzuak egingo dira.

Erdialdetik Pio Baroja-Antiguorantz eta alderantziz bidaiatu nahi dutenek 18-Seminarioa lineako zerbitzuak edukiko dute erabilgarri (egun honetan ibilbidea aldatuta edukiko du lineak honek).

**Ez da zerbitzurik egingo Okendo kalean eta Ondarreta aldearen artean.
Sanserreka aldean ez da zerbitzurik egingo.**

➤ **18-SEMINARIOA**

Gipuzkoa plazako amaierako geltokia Santa Katalina zubira aldatuko da.

-Erdialderantz: Pio Barojatik joango dira eta Pio Baroja 4an eta Pio Baroja 10ean egingo dute geldialdia (16 linea). Lugaritzetik jaitsiko dira eta Saihesbidea hartuta Pio XII.era iritsiko dira. Hortik Santa Katalina zubira joango dira (amaierako geltokia).

Geltoki hauek kenduko dira: San Martin 57, Askatasunaren Hiribidea 31, Okendo eta Gipuzkoa plaza.

-Seminario alderantz: Santa Katalina zubitik aterako dira eta F.G. Lorcatik joango dira Amarrantz, eta handik Saihesbidea hartuko dute Antiguorantz. Autobus geltoki zaharrean geldialdia egingo dute (behin-behineko zutoina). Pio Barojarantz joango dira eta Pio Baroja 15ean eta Pio Baroja 5ean (16 linea) geldialdiak egingo dituzte. Biribilgunean Mikeleteetarantz jiratuko dute eta handik ohiko ibilbidea egiten jarraituko dute.

Geltoki hauek kenduko dira: Gipuzkoa plaza, Zubieta 14 eta La Perla.

➤ **21-MUTUALITATEAK-ANOETA**

Mutualitateen aldetik ibili ezin izango duenez, linea horren zerbitzua kendu egingo da 14:00etara arte gutxi gorabehera.

Alde horretara joan nahi duten erabiltzaileek Amara aldera doazen ohiko lineen zerbitzuak erabili ahal izango dituzte (26 eta 28 lineak).

➤ **26-AMARA-MARTUTENE**

Boulevardeko amaierako geltokia Santa Katalina zubira aldatuko da.

-Erdialderantz: ez da zerbitzurik egongo ez Loiolako Erriberetan ez Loiolan. Martutenetik atera eta Kuarteletako biribilgunera iristean, Urumeako bidera itzuliko da Bizkaia pasealekurantz. Geltokirik hurbilenak hauek izango dira: Hipika-Kuartelak eta Bartzelona Hiribidea-Pablo Sarasateko gurutzea (behin-behineko zutoina).

Madrid Hiribidea 3tik Antso Jakitunera joango da, Bizkaia pasealekutik eta Foru pasealekutik, eta Santa Katalina zubira iritsiko da.

Geltoki hauek kenduko dira: Patxillardegi, Loiola-Topo, Loiola-Parking, Bartzelona Hiribidea 35 eta 15, Okendo eta Boulevard.

-Martutene alderantz: Santa Katalina zubitik aterako dira eta F.G. Lorcatik joango dira Amara aldera. Autobus geltoki zaharrean geldialdia egingo dute (behin-behineko zutoina). Amaran, **Madrid Hiribideko 10ean baino ez da geldituko**. Bartzelona Hiribidea 26tik Urkiko biribilgunetik joango da eta Aralar Mendilerrotik (34 zenbakian geldituko da), eta Kuarteletako biribilguneraino iritsiko da. Handik ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Urbieta 6, Mendeurrena, Antso Jakituna 28, Madrid Hiribidea 28, Toribio Alzaga, La Salle eta Loiola 12.

➤ **28-AMARA-OSPITALEAK**

Boulevardeko amaierako geltokia Santa Katalina zubira aldatuko da.

-Erdialderantz: Donostia Ospitalea II-ko geltokitik Martutenerantz jaitsiko da eta Urumeako bidetik Pio XII parkera iritsiko da (behin-behineko zutoina), Antso Jakituna, Bizkaia pasealekua eta Foru pasealekutik jarraituko du Santa Katalina zuberaino.

Geltoki hauek kenduko dira: Txiskuene, Begiristain II, Madrid Hiribidea 19 eta 5, Antso Jakituna 11, Easo, Okendo eta Boulevard.

-Amara-Ospitaleak alderantz: Santa Katalina zubitik atera eta F.G. Lorcatik joango da Amara aldera. Autobus geltoki zaharrean geldituko dira (behin-behineko zutoina). Amaran,

Madrid Hiribidea 14an (Geltoki hau probaren irteeran ere kendu egingo da) baino ez da geldituko. Handik Ospitaleetarantz egingo du, Urumea bidetik.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Urbieta 12 eta 58, Antso Jakituna 12 eta 28, Anoeta, Begiristain I, Lorearte, Ospitalea I eta II.

➤ **19-AIETE-BERA BERA**

Gipuzkoa plazako amaierako geltokia Marianistetara aldatuko da.

- **Erdialderantz:** Marianistetara helduko da soilik.

Geltoki hauek kenduko dira: Easo 27, Okendo eta Gipuzkoa plaza.

- **Aiete alderantz:** Marianistetatik ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Geltoki hauek kenduko dira: Gipuzkoa plaza, Urbieta 6 eta Larramendi.

➤ **23-ERRONDO-PUIO eta 32-PUIO-ERRONDO**

Amaierako geltokia Amara kalean.

Irteera guztiak 32 lineak bezala egingo ditu, ibilbide honekin:

- **Errondo alderantz:** Marianistetatik La Cumberraino igoko da eta Lazkao pasealekutik Amarako bidea hartuko dute. Gero, Katalina Eleizegitik eta Puiotik igoko dira eta San Juan de Dioseraino iritsiko dira.

Geltoki hauek kenduko dira: Urbieta 6, Urbieta 38, Mendeurrena, Pío XII eta Errondo pasealekua, Marianistetara aldatuko baitira.

- **Erdialderantz:** San Juan de Diosen buelta eman ondoren, Errondoko Gainetik itzuliko dira. Borroto kalea, Etxadi eta Aiete pasealekutik La Cumberraino Marinistetara helduz.

Geltoki hauek kenduko dira: Collado, Antso Jakituna, Easo eta Urbieta, Marianistetara aldatuko baitira. Katalina Eleizegi 1, Katalina Eleizegi 13 eta Katalina Eleizegi 25eko geltokiak hona eramango dira, hurrenez hurren: Katalina Eleizegi 2, Katalina Eleizegi 34 eta Katalina Eleizegi 48.

➤ **8-GROS-INTXAURRONDO**

Amaierako geltokia Pinudi-Mirakruz 14an edukiko du.

- **Erdialderantz:** Colón pasealekuraino baino ez da iritsiko. Amaierako geltokia Pinudi-Mirakruz 14an edukiko du (29 linearen geltokia).

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 6 eta Boulevard 19.

- **Intxaurrondo alderantz:** Mirakruzetik joango da eta 31 linearen geldialdiak egingo ditu Jaialairano. Ondoren bere ohiko ibilbidea berreskuratuko du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 19, Askatasunaren Hiribidea 19, Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa Hiribidea 34. Mirakruzera eramango dira.

➤ **9-EGIA-INTXAURRRONDO**

Boulevard 15eko amaierako geltokia Santa Katalina zubira aldatuko da.

- **Erdialderantz:** Santa Katalina zubian edukiko du amaierako geltokia.
Geltoki hauek kenduko dira: Euskadi plaza, Askatasunaren Hiribidea 6 eta Boulevard 15.

- **Intxaurrondo alderantz:** Santa Katalina zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.
Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 15 eta Askatasunaren Hiribidea 15.

➤ **13-ALTZA**

Amaierako geltokia Pinudi-Mirakruz 16ra aldatuko da.

- **Erdialderantz:** Colón pasealekuraino baino ez da iritsiko. Amaierako geltokia Mirakruzen edukiko du.
Geltoki hauek kenduko dira: Jesuitak, Mariaren Bihotza, Zurriola eta Boulevard 3.

- **Altza alderantz:** Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.
Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 3 eta Askatasunaren Hiribidea 21.

➤ **14-BIDEBIETA**

Amaierako geltokia Mirakruz-Pinudira aldatuko da.

- **Erdialderantz:** Colón pasealekuraino baino ez da iritsiko. Amaierako geltokia Mirakruzen edukiko du.
Geltoki hauek kenduko dira: Kursaal eta Gipuzkoa plaza.

- **Bidebieta alderantz:** Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.
Geltoki hauek kenduko dira: Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren Hiribidea.

➤ **17-GROS-AMARA-MIRAMON**

- **Gros alderantz:** Donostia Ospitalea II-ko geltokitik Martutenerantz jaitsiko da eta Urumeako bidetik Pio XII parkera iritsiko da (behin-behineko zutoina), Antso Jakituna, Bizkaia pasealekua eta Foru pasealekutik jarraituko du. Ondoren, Mirakruzetik joango da Ategorrietaraino.

Geltoki hauek kenduko dira: Txiskuene, Begiristain II, Madrid Hiribidea 17 eta 3, Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa Hiribidea 34.

-Amara-Ospitaleak alderantz: Iparreko Geltokitik aurrera F.G. Lorcatik joango da Amaranantz, eta autobus geltoki zaharrean geldituko da (behin-behineko zutoina). Amaran, Madrid Hiribidea 14an (Geltoki hau probaren irteeran ere kendu egingo da) baino ez da geldituko. Handik Ospitaleetarantz egingo du, Urumea bidetik.

Geltoki hauek kenduko dira: Bilbo plaza, Mendeurrena, Antso Jakituna 12 eta 28 II, Anoeta, Begiristain I, Lorearte, eta Ospitalea I eta II.

➤ **29-HEGO INTXAURRONDO SUR**

Amaierako geltokia Pinudi-Mirakruz 14ra aldatuko da.

- **Erdialderantz:** Colón pasealekuraino baino ez da iritsiko. Bukaerako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Zurriola eta Boulevard.

- **Intxaurrondo alderantz:** Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea.

➤ **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO**

-**Antiguo alderantz:** Jesuitetako eta Mariaren Bihotzeko geltokiak Jaialaira edo Galtzada Nagusira aldatuko dira. Pio XII.eko geltokia autobus geltoki zaharrera aldatuko da (behin-behineko zutoina). Saihesbidetik Antiguora iritsiko da eta geldialdiak egingo ditu Pio Barojan eta Errotaburun.

Geltoki hauek kenduko dira: Jesuitak, Mariaren Bihotza, Bilbo plaza, Mendeurrena, Pio XII, Tolosa Hiribidea eta Zumalakarregi Hiribidea. Era berean, zerbitzua Meloditik eta Lugaritzetik ohi baino 15 minutu beranduago pasatuko da.

-**Loiola-Intxaurrondo-Altza alderantz:** Amerika plazatik (geldialdia Errotaburun) Madrid Hiribidera iritsiko da, Saihesbidetik. Madrid 28ko, La Salleko, Patxillardegiko eta Loiola-Parkingeko geltokiak Madrid 10era eta Bartzelona Hiribidera aldatuko dira. Loiolatik Egia alderantz jarraituko du.

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Hiribidea, Madrid 28, Zorroaga pasealekua, Nemesio Etxaniz eta Erribera pasealekua.

➤ **27-ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO-GROS**

- **Antiguo alderantz:** Loiolako Erriberetako geltokiak Bartzelona Hiribidea eta Pablo Sarasate elkartzan diren puntura aldatuko dira (behin-behineko zutoina) eta handik Amaranantz

jarraituko du. Pio XII.eko geltokia autobus geltoki zaharrera aldatuko da, Pio XII.ean (behin-behineko zutoina). Antiguon, hemen egingo ditu geldialdiak: Pio Baroja 4, Matia, R.M. Azkue eta Zarautz Hiribidea.

Geltoki hauek kenduko dira: Aralar Mendilerroa 34, Patxillardegi, Bartzelona Hiribidea 35 eta 15, Pio XII, Tolosa Hiribidea eta Zumalakarregi Hiribidea.

- **Gros-Larratxo alderantz:** Zarautz Hiribidea 122tik Amerika plazara joango da, eta handik Saihesbidean sartuko da Amara alderantz. Antso Jakituna 33tik aurrera ohiko ibilbideari helduko dio.

Geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregi Hiribidea, Tolosa Hiribidea eta Collado. Era berean, zerbitzua Lugaritzetik ohi baino 15 minutu lehenago pasatuko da.

➤ **31-INTXAURRONDO-AIETE-OSPITALEAK-ALTZA**

Linearen ibilbidearen zati handi bat lasterketaren ibilbidea bera denez, linea horretan ez da zerbitzurik egongo 14:30era arte gutxi gorabehera (14:38ean Santa Barbaran eta 14:40ean Zubiaurren).

➤ **33-LARRATXO-INTXAURRONDO-ANTIGUO-BERIO**

- **Antiguo alderantz:** hemendik ibiliko da: Colón pasealekua, Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), F.G. Lorca, Lehendakari Agirre Zubia, Pio XII (geldialdia), Saihesbidea, Errotaburu eta Igara. Beriotik bueltan baino ez da igaroko.

Askatasuna 18, Zubieta 14 eta La Perla **Iparreko Geltokira** eramango dira. Pio XII.eko autobus geltoki zaharrean ere geldialdia egingo da. Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideko geltokiak kenduko dira. Berioko geltokiak joaneko ibilbidean kendu egingo dira: Unibertsitatea, Berio 22, Aspace, Berio 78 eta Berio 118.

- **Larratxo alderantz:** Igaratik ohiko ibilbidea egingo du Beriotik. Gelategitik Ibaeta alderantz joango da, Saihesbidea, Pio XII, Bizkaia Pasealekua, Foruen Pasealekua eta Santa Katalina Zubia.

Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideko geltokiak **Elhuyar Plazara** lekualdatuko dira. San Martin 57, Askatasunaren Hiribidea 21 eta Askatasunaren Hiribidea 3 **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

Antiguotik Berio-Igarara eta Berio-Igaratik Antiguora joateko, Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartu beharko da (doakoa). Zerbitzu hori Matia kaletik, Resurreccion Maria Azkue kaletik, Zarautz Hiribidetik eta Errotaburutik joango da.

➤ **35-ARRIOLA-ANTIGUO-AIETE-OSPITALEAK**

Ospitaleetatik Antiguorantz: Geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregi eta Tolosa Hiribidea, Pio Barojara eta Julianategira aldatuko baitira, hurrenez hurren. Errotaburutik eta Beriotik iritsiko da autobusa Arriolara.

Ospitaleetarantz: Elhuyar plazatik Amerika plazarantz jarraituko du, handik Lugaritzerantz eta gero, Pio Baroja 4an, ohiko ibilbidea egiten jarraituko du Ospitaleetarantz. Antiguora joan nahi duten bidaiariek Errotaburu-Antiguo lotuko dituen zerbitzua hartu beharko dute. Geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregi eta Tolosa Hiribidea.

➤ **36-SAN ROKE-ALDAKONEA**

Linea bitan bereiziko da.

- **San Roke aldea:** Arroka Plazatik Matiara bitan bereiziko da.

Geltoki hauek kenduko dira: Euskadi plaza, Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta 6-38, Arroka Plazara aldatuko baitira.

- **Aldakonea aldea:** geltoki hauek kenduko dira: Easo plaza, Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea 19, Santa Katalina zubira aldatuko baitira.

➤ **37-RODIL-ZORROAGA**

-**Zorroaga alderantz:** Mariaren Bihotzeko geltokia Galtzada Nagusira aldatuko da. Zurriolako, Gipuzkoa plazako eta Askatasunaren Hiribideko geltokiak, berriz, Colón pasealekura edo Iparreko Geltokira aldatuko dira. Amaran, Baleazaleen kalean baino ez da geldituko. Urumeako bidetik eta Ospitaleetatik iritsiko da Mendigainera. Kendu egingo da, halaber, Anoetako geltokia.

-**Rodil alderantz:** Larrañategiko geldialdia Begiristaineko gurutzean egingo da. Martuteneko biribilgunetik eta Urumeako bidetik Pio XII parkera iritsiko da (behin-behineko zutoina). Gero, Antso Jakitunetik, Bizkaia pasealekutik, Gernikako Arbolatik eta Foru pasealekutik igaroko da (17 linearen geltokiak) eta Santa Katalina zubiraino iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean).

Geltoki hauek kenduko dira: Madrid Hiribidea 17, Easo plaza, Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea.

➤ **41-GROS-EGIA-MARTUTENE**

Amaierako geltokia Jaialaria aldatuko da.

- **Gros alderantz:** Bartzelona Hiribideko geltokiak aurreko geltokietara lekualdatzen dira (10 eta 26 zenbakiak). Iparragirre, Zurriola eta Groseko Anbulatorioko geltokiak Mirakruzera eta Jaialaria aldatuko dira. Era berean, geltoki hauek kenduko dira: Patxillardegi, Loiola Topo eta Loiola-Parking.

- **Martutene alderantz:** Jaialaitik aurrera Fernando Sasiainetik jarraituko du eta ohiko ibilbidea egingo du Bartzelona Hiribidea 26raino. Urkiko biribilgunerantz jarraituko du eta Aralar Mendilerroa kalean sartuko da (geldialdia 34 zenbakian). Kuarteletako gurutzetik aurrera ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Geltoki hauek kenduko dira: Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa Hiribidea 34, Mirakruzera eta Jaialaria aldatuko baitira. La Salleko eta Loiola 12ko geltokiak kendu egingo dira.

➤ **42-ALDAPA-EGIA**

Boulevardeko 15eko amaierako geltokia Santa Katalina zubira aldatuko da.

- **Erdialderantz:** Galtzada Nagusitik aurrera Colón pasealekutik, Frantzia pasealekutik, Maria Cristina zubitik eta Foru pasealekutik joango da eta Santa Katalina zubian amaierako geldialdia egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Kursaal eta Boulevard.

- **Aldapa alderantz:** Santa Katalina zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 15.

➤ **45-RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE**

- **Antiguo alderantz,** ibilbide hau egingo da: Geltokiak, F.G. Lorca, Lehendakari Agirre Zubia, Pio XII (geldialdia) eta Saihesbidea Errotaburuko geltokiraino (5 linearen geltokia). Errotaburutik ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Bera Bera-Pagolarantz.

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasuna 18, Zubieta 14 eta La Perla. Iparreko Geltokira eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharrear egingo dira geldialdiak. Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak kenduko dira.

- **Erdialderantz:** ohiko ibilbidea egingo du Errotabururaino eta ondorek kale hauetatik ibiliko da: Saihesbidea, Pio XII, Gernikako Arbola pasealekua (17 linearen geltokietan geldialdiak eginda), Foru pasealekua, Santa Katalina Zubia eta Iparreko Geltokia.

Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Hiribidea eta Ondarreta geltokiak kenduko dira. San Martin 57 eta Askatasunaren Hiribidea 31 geltokiak Foru pasealekura lekualdatuko dira.

Antiguotik Aietera eta Aietetik Antiguora joateko, Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartu beharko da (doakoa). Zerbitzu hori Matia kaletik, Resurreccion Maria Azkue kaletik, Zarautz Hiribidetik eta Errotaburutik joango da.

➤ **46-MORLANS LINEAK**

Errondo pasealekutik eta Morlans-etik zirkulatu ezin izango denez, **linea horretan ez da zerbitzurik egongo Morlanseko zonaldean 14:00etara arte gutxi gorabehera.**

Alde hauetatik mugitu nahi diren erabiltzaileek Amara aldera doazen ohiko lineen zerbitzuak erabili ahal izango dituzte (26L eta 28L). **Mikrobusak San Antonio-Montesol gunearen eta Santa Katalina zubiaren artean bakarrik egingo du zerbitzua.**

➤ **TB6-ULIAKO TAXIBUSA**

- **Ulia alderantz:** 8:20tik 12:45era gutxi gorabehera, Iparragirre eta Groseko Anbulatorioko geltokiak Pinudi-Mirakruz 16ra eta Jaialaira aldatuko dira.

- **Gros alderantz:** 8:20tik 13:15era gutxi gorabehera, Mariaren Bihotzeko geltokia Ategorrieta 41-era aldatuko da.

12:00etatik aurrera Loiolako eta Anoetako ibilbideak eta geltokiak berriro martxan jartzen joango dira, eta 13:00ak aldera Groseko eta Boulevardeko ibilbideak eta geltokiak.

Informazio gehiagorako, kontsultatu www.dbus.eus web gunean edo deitu 943 000 200 telefonora.

